

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA OROKORRA

2024ko PROBA



IRUZKIN

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

IRUZKINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2024

COMENTARIO

Garen baino gazteago sentitzen gara

Zientzia eta teknologia

Uxune Martinezek, Euskampus Fundazioko Kultura Zientifikoko eta Berrikuntza Unitateko Zabalkunde Zientifikorako arduradun eta [Zientzia Kaiera](#) blogeko editoreak.

Gizakiok ez dugu adin bakarra. Alde batetik, denborak ematen duen adina daukagu, jaiotza-agiriak agerian uzten duen hori. Bestalde, adin biologikoa dugu, gure gorputzean eragina zehazten duen markatzaile biokimikoen multzoa. Azkenik, sentitzen dugun edadea dago, gure adin subjektiboa.

Adin subjektiboak norberaren zahartze-tasari buruzko pertzepzioa deskribatzen du. Pertzepzio hori aztertu duten ikerketek erakutsi dute benetan garen baino gazteago sentitzen garela, batez ere 40 urtetik aurrera.



Zientzialariek ikusi dute adin kronologikoa baino gazteagoak sentitzen diren pertsonak, oro har, osasuntsuago daudela eta zaharragoak sentitzen direnak baino erresilienteagoak izan daitezkeela. (Argazkia: Praveen Raj)

Zahartzeari buruzko azterketak adin subjektiboa kontuan hartzen hasi dira. Adin subjektiboa sentitzen dugun edadea da eta, bitxia bada ere, nerabezaroan eta gaztaroan gure adin kronologikoa baino zaharrago sentitzen gara. Adituen



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

IRUZKINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2024

COMENTARIO

ustetan, horren arrazoia izan daiteke, batetik, gazteek helduarora heltzeko presa dutela eta, bestetik, erabakiak hartu beharrak zaharrago sentiarazten dituela. Behin 40 urte beteta, aldiz, benetan garen baino gazteago ikusten dugu geure burua. Kasu honetan, gazteago "ikusit" bere horretan har dezakegu; izan ere, ispiluaren aurrean gaudenean, ez ditugu hautematen hark erakusten dizkigun zimur eta ile urdinak dagokien neurrian. Badira ere iraganeko irudia ikusten dutenak ispiluaren aurrean, gazteagoko oroitzapena giltzaperatuta balute bezala.

Ikerketen emaitzek erakutsi dute, esaterako, 30 urte betetakoan inflexio-puntu bat dagoela eta pertzepzioa kontrakoa bihurtzen da: adin kronologikoak adierazten duen baino gazteago sentitzen gara. Adibidez, 40 urtekoen % 80 gazteago sentitzen da. Batez beste, hiru urte gazteago. 50 urte bete ondoren, kopurua handitu egiten da, eta 5 urte gazteago sentitzen omen gara. Aldiz, 70 urte inguru dituztenen % 60k 10 eta 15 urte gazteago sentitzen dira. Soilik 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 25ek, eta 65 eta 70 urte bitartekoek % 11k sentitzen du benetan duen adina.

Alexandre Kalache medikua aditua da zahartze-prozesuetan, eta, haren esanean, adin kronologikoak utzi egin dio zahartzarua neurtzeko tresna erabilgarria izateari. Gaur, beste era batera zahartzen gara. Bizi-baldintza hobekoak lagundu egin diete 65 urtekoen osasuntsu eta bizkor mantentzen, eta, erretiroa hartu ondoren, hogeita hamar urte inguru dituzte aurretik jubilatuak. Horregatik sentitzen dira gazteago kronologikoki adineko pertsonatzat har daitezkeen baina funtzionalki ondo dauden nagusiak. Azken urteetan hazi egin da kopuru hori eta, ondorioz, bizitzaren etapan definizioan, beste fase berri bat gehitu beharko litzatekeela uste du Kalachek: "gerontoneraberazoa" (gazelaniaz, gerontolescencia; gerontologia eta nerabearoa batzen dituen terminoa).

Gazteago sentitzearen ajeak

Adin subjektiboak aukera ematen die adinekoei proiektu berriak hasteko eta interes pertsonal berriak garatzeko. Behar duten bultzada emateko baliagarria izan daiteke. Baina, ba al du ondorio negatiborik? Evidentzia zientifikoek adierazten dute adin errearen eta adin subjektiboaren arteko alde horrek arazoak sortuko litzatekeela, baldin eta ez badira egoki neurtzen edo baloratzen norberak dituen gaitasunak. Adibidez, badira bastoia erabiltzeari, audifonoa jartzeari edo hirugarren pertsonen laguntzari uko egiten diotenak, aldaketa fisikoak neurrian hauteman ez eta euren burua gaztetzat hartzen dituztelako.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

IRUZKINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2024

COMENTARIO

Ezezko horiek arriskuan jartzen dituzte adinekoak, eta euren bizi-kalitatea eta ongizatea galaraz ditzakete.

Hala ere, adineko pertsonen adin subjektiboari buruzko ikerketek adierazten dute harreman positiboa dagoela gazteago sentitzearen eta osasun hobea izatearen artean. Zergatik? Gazte sentitzerakoan, besteak beste, errazago parte hartzen da ekintzetan, aktiboagoak mantentzen gara, sedentarismoa ekiditen da eta elikadura gehiago zaintzen dugu. Bizi-ohitura on horiek, guztiek, osasun fisiko zein mental hobea eragiten dute.

Azkenik, adineko pertsonak gazteago sentitzen dira, baldin eta adin txikikoz inguratuta badaude. Adibidez, aitona-amonak gazteago sentitzen dira bilobekin duten harremanagatik. Txikiekin batera paseatzea, jolastea edo zereginetan parte hartzeak aktibo mantentzen laguntzen die, eta zahartze-prozesu hobea izaten laguntzen die.

(Egokitua) <https://zuzeu.eus/tekno/garena-baino-gazteagoak-sentitzen-gara>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

IRUZKINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2024

COMENTARIO

IRUZKINA

Irakurritakoa kontuan harturik, 25-30 lerroko testu bat idatziko duzu.

Testuak, gutxienez, 200 hitz eduki behar ditu. (10 puntu)

Aukeratu bi gai hauetako bat eta testua idatzi.

A.- Idatz ezazu zure herriko aldizkarirako artikulua bat herriko adinekoentzat zerbitzuak behar direla adierazteko: zaharren egoitza, eguneko zentroa... Herriko jendeak adin batetik aurrera beste herrietara joan behar izaten du, herrian ez dagoelako adinekoentzako zerbitzurik.

B.- Idatz ezazu hirigintzako udal-teknikariari zuzendutako gutun bat herrian eskailera mekanikoak edo igogailua behar dela uste duzula adierazteko. Adineko herritar asko ezin dira herriko goiko aldera igo, eta han bizi direnak ezin dira behera jaitsi. Horrekin batera, egin ezazu eskailera mekanikoen edo igogailuaren eskaera.

Gogoratu honako alderdi hauek hartuko direla kontuan testua zuzentzeko eta ebaluatzeko:

Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).

Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik



TESTU IDATZIA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Bi txantiloia-eredu proposatzen dira. Bata zein bestea erabil daiteke.

Txantiloia 1: Deskripzio analitikoa

	ADIERAZLEAK	Oso Ondo 0,7-1 ptu.	Ondo 0,5-0,6 ptu.	Gaizki 0,2-0,4 ptu.
Egokitasuna (2 puntu)	1. Testuak hizkuntza-erregistro egokia du. Eskatutako hitz kopuru minimoa du			
	2. Testua ondo egokitzen zaio proposatutako helburuari eta eskatutako testu generoari.			
	Egokitasuna	(.....puntu)		
Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)	3. Egitura argia eta zehatza du: sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere adierazi du.			
	4. Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.			
	5. Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu-antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	6. Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo			
	erabiltzen ditu. Puntuazio-markak ere ondo erabiltzen ditu.			
	Koherentzia eta kohesioa	(.....puntu)		
Lexikoa, sintaxia morfologia eta ortografia (4 puntu)	7. Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			
	8. Arau morfologikoak betetzen ditu: deklinabidea, aditzaren denbora, aspektua eta komunztadura			
	9. Arau sintaktikoak betetzen ditu. Esaldien egitura zuzena eta egokia da.			
	10. Ortografia-arauak betetzen ditu			
	Lexikoa, sintaxia, morfologia eta ortografia	(.....puntu)		
	GUZTIRA		



Txantiloia 2: Deskripzio sintetikoa

8-10 puntu	<ul style="list-style-type: none">-Eskatutakoari lotzen zaio (helburua, gaia, hitz kopurua...)-Erregistro egokia du.-Aukeratutako edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako, ez dago errepikapenik eta gaiak aurrera egiten du- Ideiak eta argudioak ondo garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute.- Lokailuak, antolatzailek eta egitura sintaktikoak egokiak eta aberatsak dira- Ez du akats morfologikorik ezta ortografikorik ere
7-8 puntu	<ul style="list-style-type: none">- Eskatutakoari lotzen zaio. Erregistro egokia erabiltzen du.- ideiak et argudioak garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute.- Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (menpekoak, lokailuak...)- Testuak ez du ia akatsik, baten bat, baina ez sistematikoak eta ez dute ulermena eragozten
5-6 puntu	<ul style="list-style-type: none">-Zenbait akats sistematiko ditu edukian edo forman, Hala ere, akats horiek ez dute oztopatzen testua ulertzea.-Ideien arteko koherentzia eta kohesioan dituen gabeziak ez dute oztopatzen ulertzea.- Argudioak edo ideiak ez daude guztiz garatuak, batzuetan jauziak atzeman daitezke-Egitura sinpleak erabiltzen ditu oro har-Ortografian eta puntuazioan akatsak daude, baina ez oso larriak.
3-4 puntu	<ul style="list-style-type: none">-Ez zaio eskatutakoari lotzen.-Ez du hitz kopuru minimoa.-Ulegarritasuna oztopatzen duten ideien arteko jauziak, erreferentzia galtzea...- Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, haietan ere akatsak atzematzen dira.- Gabezia handi samarrak komunikazioari eta hizkuntzaren ezagutzari dagokienez- Ortografian, arruntak diren hitzetan ere akats larriak.
1-2 puntu	<ul style="list-style-type: none">-Ez du eskatutakoa bete.-Hitz kopuru minimoa ere ez du bete-Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu-Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, haietan egiten dituen akatsak ulermena eragozten dute.-Nabarmenak dira komunikazio- eta hizkuntza-gabeziak-Oinarriko akats gramatikal larriak egiten ditu: ergatiboa, komunztadura, perpaus osagarriak

EZAGUTZA-ADIERAZLEAK

2.7. Eskatutako testu motaren berezko eskemen arabera ideiak antolatu, planifikatu eta informazioa koherentziaz antolatzea.

1.5. Multzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, ondo lotuak eta zuzenak sortzen ditu.

2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilia.

4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.